



*Asteasuko Siemens-Gamesako langileak greban daude. Irailaren 24an hasi zuten greba eta urriaren 1era luzatuko da, bajaran zegoela kaleratu zuten lankide baten berronartzearen alde.*

Jarraipenari dagokionez tallerrean ia erabatekoa izan da, atzo ez zen inor joan lanera. Bulegoetan, %40ko jarraipena gutxi gora behera.

Mobilizazio iraunkorrean daude langileak, piketeak, kontzentrazioak, pankartak eta kartelak jarri... Parte hartzea oso handia izan da. Goizeko bost eta erdietan 40 lagun inguru bildu dira egunero.

Gaur Zamudiora joan dira Siemens Gamesako egoitza nagusiaren aurrean kontzentrazioa egitera. Bihar, egunero bezala 5:30etatik aurrera enpresa aurrean mobilizatuko dira Asteasun.

Enpresaren aldetik ez dago mugimendurik eta jarrera itxian mantentzen dira. Datorren astean beste asanblada bat izango da hemendik aurrerako dinamikak definitzeko.

—